

Bilboko Arte Ederren Museoko urre-koloreko aharia



Ramón Corzo Sánchez

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

- © Ashmolean Museum, Picture Library: 11. eta 18. ir.
- © Biblioteca comunale degli Intronati, Siena: 6. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 2., 5., 7. eta 8. ir.
- © Christie's Images / The Bridgeman Art Library: 3. eta 17. ir.
- © De Agostini Picture Library / A. Dagli Orti / The Bridgeman Art Library: 16. ir.
- © Royal Museums of Art and History, Brussels: 9. ir.
- © The Cleveland Museum of Art: 13. ir.
- © The J. Paul Getty Museum, Villa Collection, Malibu, California, Gift of Mr. and Mrs. Theodore Wolfberg: 10. ir.
- © The Metropolitan Museum of Art: 19. ir.
- © The Trustees of the British Museum. All rights reserved: 14. eta 15. ir.
- © Virginia Museum of Fine Arts. Photo: Katherine Wetzel: 12. ir.

Argitalpena:

Buletina = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 7. zenb., 2013, 15.-47. or

Babeslea:



metro bilbao

Museoek kultura-ondare zabala gordetzen dutenez, beren funtsetan dituzten pieza askoren balioa aintzat hartu ahal izateko, haien jatorria ezagutu behar da. Museoetako lan batzuek, hasieran, komunitateak sortu dituen ondasun artistikoekin zerikusirik ez dutela ematen du, baina, hala ere, aukera ematen digute ikuspegi historiko erakargarria osatzeko. Bertan, ondoz ondoko jabeak kateatu egiten dira, obrari berari egin zioten arreta kontuan izanik: hala artista eta lana sorrarazi zuen kultura, nola gaur egun lan hori ikusgai duen instituzioa (parte-hartze sozialaren esparruan dituen xedeak betetzeko).

Bilbotarren eskuzabaltasunaren ondorioz Arte Ederren Museoa aberastu duten piezen artean, zeramikazko lan bikain bat dago. Lan horren esanahia oso berezia izateaz gain, pieza ezin hobeto gorde da gaur egun arte, eta kalitate plastiko gorenekoa da. Geldirik dagoen ahari baten irudi bat dugu mintzagai [1. ir.], zeramika greko zaharraren bereizgarria den pasta finean modelatutakoa. Joan den mendearen erdialdean museoak jasotako Palacio bildumaren barruan dago.

José Palacio Olavarría bildumagilea eta bere zaharkiak

Palacio bilduma 1953. urtean heldu zen Bilboko Arte Ederren Museora. José Palacio Olavarría Montevideon jaio zen 1875eko irailaren 28an. Bere biografia xumeari erreparatuta dakigunez¹, 1920 inguruan Bilboko Kale Nagusian jarri zen bizitzen, 24. zenbakiko eraikineko 4. solairuan, eta eraginkortasunez hartu zuen parte hiriko kulturaren. Heriotza-ziurtagiriaren arabera, abokatu zen. Antza denez, Arkitekturako ikasketak egin zituen Bartzelonan, baina ez dakigu arkitekto-lanbidean inoiz aritu ote zen. Palacio maiz joaten zen Sozietate Filarmonikora, eta oso musikazalea zen. Hortaz, sarritan bidaiatzen zuen Parisera, eta, han, operako denboraldira joaten zen, erakusketetara eta museoetara zihoanean bezalako gogoarekin. Denboraren poderioz, oso ondo ezagutu zituen Guimet museoa eta Louvren zeuden Ekialdeko arteari buruzko sailak, bildumagile

1 Sagaste 2007, 456. or.



© Babestutako materiala

1. Ahari formako askos
Grekoa, K.a. IV. mendea
Zeramika. 13 x 6 x 22 cm
Bilboko Arte Ederren Museoa
Inb. zenb. 82/1505

bezala Ekialde Urruneko arteak baitzituen gogokoen². 1925 eta 1932. urteen artean, askotan joan zen Paris-ko enkanteetara, batez ere Hôtel Drouot enpresak egin zituenetara. Enkante horietan, obra ugari eskuratu zituen, eta beharbada museoekin ere arituko zen lehian, museoek eskuratzen zutena zehatz-mehatz uzten baitzuen idatzita. Gerra Zibilean bilduma bahitu zioten, eta Bilboko Arte Ederren Museoan gorde zuten³; gero, ziurrenik, gordetegi frankora eramango zuten, museoeko gainerako artelanekin batera, eta hor egongo zen 1938. urtean itzuli zioten arte⁴. Gero, antza denez, ez zuen beste lanik eskuratu, hurrengo urteetako egoera politikoaren ondorioz, eta, beharbada, adinean sartua zegoelako, ezin izan baitzuen berreskuratu Paris bisitatzera joateko ohitura. 1952ko urtarrilaren 25ean hil zen, hirurogeita hamazazpi urte zituela. María de Arechavaleta zen bere lagun eta oinordekoa (1881-1954). Hura arduratu zen 1952 eta 1954. urteen artean Palacioren bilduma Bilboko Arte Ederren Museoari dohaintzan emateaz eta oinordetzan uzteaz.

José Palaciok Ekialde Urruneko hirurehun artelan baino gehiago bildu zituen. Ziurrena, beraren ustez, hori izango zen bere burua ondoen ordezkatzeko zuten bildumako atala, eta bere figura gogorarazteko hautatuko zuena. Hortaz, María de Arechavaletak bilduma museoari eman zionean, Ekialdeko arteko piezekin batera, pieza horiei buruzko informazioa zuten liburuak eta piezak eskuratu zituen enkanteetako katalogoak ere eman zizkion museoari, haietako asko Palaciok berak egindako oharrekin. Gainerakoan, Palacioren bilduman beste 200 pieza gehiago daude, konposizio askotarikoak denak: Erdi Aroko irudiak, XVI. eta XIX. mendeen arteko tailuak eta olioak, miniaturak, marrazkiak, grabatuak, kutxatilak, portzelanak, brontzeak, haizemai-leak, txanponak eta medailak. Pieza guztiak gustu bikainekoak dira, eta ezin hobeto ordezkatzeko dituzte bildumagilearen zaletasunak. Ondorio hori atera dezakegu, adibidez, Europako portzelanazko kikaren sorta askotarikoa ikusita, tearen zeremoniarako zituen kikara japoniarren bilduma hautatuarekiko paraleloan.

Pieza arkeologikoak ez dira oso ugariak Palacioren bilduman, eta ez dute multzo handirik osatzen. Beharbada, ez zuen pieza horietan ezaugarri egokirik antzemango, gainerako piezekin txertatu ahal izateko. Obra egiptoarren multzo txiki bat eta beste objektu arkeologiko batzuk Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoari laga nahi izan zizkion (Euskal Museoari). Horrenbestez, María de Arechavaletak eman zizkion bere izenean museoari 1925. urtean⁵. Bestetik, Bilboko Arte Ederren Museoari emandako dohaintzan eta ondarean, beste era bateko zaharrik sartu zituen, hala nola, txanponak, artikulu honek hizpide duen zeramikazko aharia, eta, material eta gai aldetik ahariarengandik hurbil egoteagatik, labur aipatu beharreko bi pieza: Italia hegoaldeko *lekythos* bat eta urrezko belarritako bat.

Lekythos figurak [2. ir.] lepo lodia du, turuta-itxurakoa, oinarrian estugunerik gabekoa. Mota motz edo gilbortsukoa da (*squat lekythos*), Kristo aurreko IV. mendeko Italia hegoaldeko ekoizpenetan ohikoa den bezala. Guztira 9,2 cm-ko garaiera du, eta, beraz, perfume-ontzi txiki bat dela esan genezake, hilerri etruskoetan eta italikoetan ugari aurkitu ohi diren horietakoak. Dekorazioan, «irudi gorrien» teknika erabili dute, hau da, kolore beltzeko bainu trinko bat eman, eta zati bat baizik ez dute erreserban utzi: irudiak buztin egosiaren kolore gorritan mozten direneko gunea. Oba-orka txiki bat du behealdean, lasterka ari den oreinkume baten oinarri gisa baliatua; oreinkumearen larrua pikardatua da, eta bi landare-zurtain ditu alboetan, oso estilizatuak. Gaingiroki eginda dago, garai berantiarreko piezetan gertatu ohi den moduan. Irudiko eredia Atenasko tailerretakoa da; argi ikus daiteke hori Kristo aurreko V. mende amaierakoa den Atenasko *lekythos* hauskor

2 Pereda 1998, 10. or. eta hurrengoa.

3 Museoaren Artxiboko burua den Mikel Urizarrek eman dizkidan datuen arabera, konfiskazioa 1936ko abenduaren 23ko aktan dago jasota (Bilboko Arte Ederren Museo / Aktak. II. libk., 59R or.).

4 Bilboko Arte Ederren Museo / Aktak. II. libk. 62R or. (1938ko urtarrilaren 13a); II. libk., 63R or. (1938ko maiatzaren 13a); II. libk., 64R or. (1938ko irailaren 28a).

5 Ortuondo/Entrena 2006.



2. *Lekythos* sabelduna
Suritalikoa, K.a. IV. mendea
Zeramika. 9,2 cm (altuera)
Bilboko Arte Ederren Museoa
Inb. zenb. 82/1436



3. Figura gorriko *lekythos* sabelduna
Atikarra, K.a. V. mendearen amaiera
Bilduma partikularra



4. Figura gorriko *lekythos* sabelduna
Atikarra, K.a. IV. mendea
Museo Archeologico Nazionale «Domenico
Ridola», Matera, Italia

bati erreparatuta [3. ir.]⁶, edo Sarajevoko Museoan dagoen beste bat kontuan hartuta⁷. Estiloa ikusita, Apuliako zeramiken «Perth taldea» deitutakoarekin elkartu dezakegu⁸; horien artekoa den eta Materako Museo Domenico Ridolan dagoen *lekythos* bat oso antzekoa da [4. ir.], baina, desberdintasun gisa, pantera bat da irudikatuta duen animalia. Hala ere, nolabait esan liteke esku berberak egin dituela biak ala biak.

Urrezko belarritakoak [5. ir.] 2,5 cm-ko diametroa du, eta bi uztai paralelok eratzen dute. Uztai horiek muturrean batzen dira, kordoizko apaingarri txiki batzuekin, eta apaingarri horiek aurrez aurre jarrita dauden bi ahari-bururi eusten diete. Piezaren estiloa ohikoa da Kristo aurreko V. eta III. mendeen arteko lan greko eta etrusko askotan.

Nabarmendu behar dugu José Palacio Olavarríak batu zituen arkeologiako pieza urrien artean zenbait antzekotasun azaltzen direla, eta antzekotasun horiek bildumagileak zituen zaletasunen erakusgarri direla. Itxuraz, *lekythosa* artikulua honen xede nagusia den ahari ederraren eta belarritakoaren laguntzaile txiki bat baizik ez da. Erremate gisa jarrita dituen ahari-buruek argi adierazten dute animalia horrek nola-halako arreta piztu zuela bildumagilearen baitan. Bi piezak soil eta dotore samarrak dira aldi berean, eta hori guztiz bateragarria da bildumagileari hainbeste interesatu zitzaizkion zeramikazko te-kikara japoniarren kutsu soil eta garbiarekin.

6 Kozloff 1981, 1. libk., 127. or.

7 CVA, Sarajevo, 46, Pl. (168) 41.1. (CVA = Corpus Vasorum Antiquorum. Erreferentziak aipatzean argitaratutako bildumei dagokien liburuki bakoitzaren goiburukoa adierazten da, Oxfordeko Unibertsitateko Classical Art Research Centreren datu-basean erabilitako siglei jarraiki. <http://www.beazley.ox.ac.uk/index.htm>).

8 Trendall/Cambitoglou 1978-1982, 1. libk., 672 or. eta hurrengoa.



5. Bi ahari-bururekin errematatutako
belarritakoa
Grekoa edo etruriarra, K.a. V-III. mendeak
Urrea, 2,5 cm (diametroa)
Bilboko Arte Ederren Museoa
Inb. zenb. 82/1434

Urre-koloreko aharia eskuratzea

Palacio bildumako ekialdeko piezen eta gainerako artelanen nahas-mahasaren artean, bereziki nabarmentzen da Greziako zeramikazko edalontzi erakargarri bat. Haren ezaugarriak ikusita, arazorik gabe jar daitezke Txina eta Japoniako gauza ederren ondoan. Geldirik dagoen ahari bat agertzen da bertan. Bere jatorriari dagokionez, Drouot enkantearen katalogoan José Palacio berak idatzi zituen datuak baizik ez ditugu. Esan bezala, katalogo hori museoak eskuratu zuen, eta hizpide dugun datua liburutegiko 008031 erregistro-zenbakia da⁹. Katalogo horretako 3. orrialdeko goiko aldean, hauxe dago tintaz idatzita: «Comprado en esta venta un vaso griego (fuera de catálogo) que según declaró el experto proviene de la colección Porri (es mi carnero). Me felicitó un Sr. del Louvre. Creo». 34. orrialdearen behealdean, obren zerrenda Txinako piezetatik Asia txikiko eta Egiptoko piezeta igarotzen denean, tintaz eta eskuz idatzitako «mío Vaso carnero griego Porri» esaldia agertzen da, jarraian, kopuru bat, piezaren prezioa izan daitekeena, eta, behean, arkatzez jasoa, «de la Colección Porri» oharra. Era berean, katalogo horren azalean, bizkarreko laukiaren gainean, hauxe irakur dezakegu: «El carnero romano, el vaso celadon Ming y la Chiniere amarilla y verde Ming de casa». Hortik atera dezakegu ondorio gisa, Palacio Schilling bildumaren enkantera joan zenean eskuratu zuela aharia, eta, aldi berean, Ming dinastiako bi pieza txinatar erosi zituela bertan. Alabaina, aharia katalogoan jasota ez dagoenez, aurreko enkante batetik geratu den objektu bat izan behar du, Palaciori bereziki interesatu zitzaion eta garaitu horretan eskuratu zuen objektu bat. Era berean, ziurrena, Palacio zalantzak izango zituen lana sailkatzerakoan, ohar batean grekotzat jotzen baitu, eta beste batean, berriz, erromatartzat. Edonola ere, itxura denez, José Palacio oso gustura geratu zen, Louvre Museoarekin erlazionatzen zuen norbaitek zorionak eman zizkiolako egindako erosketagatik.

Ezinezkoa egin zait Drouot enkanteetan «Colección Porri» bildumako beste piezaren bati egindako aipamenik aurkitzea; eta, orobat, pieza horiek eskuratu zitzaizketen museorik ezagunenetan ez da izena aipatzen, obren sorburu gisa. Izen horrek bildumagile batekin duen bat-etortze nabarmen bakarra hauxe da: Sienako Giuseppe Porri editorea (1798-1885) [6. ir.]. Editore horrek ezohiko bilduma eman zion dohaintzan bere hiriarri: liburuak, eskuizkribuak, autografoak, marrazkiak, grabatuak, txanponak eta zigiluak¹⁰. Gaur egun, «degli Intronati» Udal Liburutegian eta Sienako Museo Zibikoan daude gordeta. Bilduma horretan gehien estimatzen

9 Poteries archaïques chinoises... 1925.

10 Catoni 1975.



6. Giuseppe Porri (1798-1885)
Biblioteca Comunale degli Intronati, Siena

zen atala autografoena zen¹¹; bere garaiko Italiako kultura-arloko pertsona ospetsuekin izan zituen harreman bikainei esker eskuratu zituen horiek. Porrik oso bizitza lanpetua izan zuen Sienako politikan, ederki ezagutu zituen bere hiriko zaharkien bildumagileak, Sienako historiari buruzko lan asko eman zituen argitara, eta, lan horietan, bera arduratu zen Erdi Aroko txanpon-etxearen azterketa egiteaz¹².

Bildumagile numismatikoa zenez, Giuseppe Porrik bederatzi mila pieza bildu zituen ia; eta pieza horietatik, bi mila berrehun eta laurogeita bat Erdi Arokoak ziren: txanpon etruskoak, grekoak eta erromatarrek, gehienak beste txanpon-bildumagile batzuekin trukean arituz eskuratutakoak. Alabaina, liburu eta autografoen bildumagileekin ere aritu zen trukean; adibidez, horien artean Sienako zale bat aipatzen da, Porri berarekin aritzen baitzen bikoiztutako piezak trukatzeko¹³. Horrek argi frogatzen du Porri maiz egoten zela harremanetan bere eskualdean izaten ziren arkeologiako aurkikuntzekin. Sienako liburutegiari emandakoaz aparte, Porrik ondare guztia utzi zion oinordetzan Istituto Toscano dei Sordomuti delakoari. Tommaso Pendolak Sienan sortu zuen institutu horrek Porriren ondasun higiezinak, altzariak eta artelanak ere jasoko zituen, artelan guztietatik hiru margolan baizik ez baitzituen gorde Porrik, bere testamentuaren betearazleetako bat saritzeko gorde ere¹⁴. Gure aharia Porrirena bazen, eta, hala, instituzio horren eskura iritsi bazen, litekeena da gero saldua izatea, beste objektu batzuekin batera, instituzioa mantentzeko lanetarako laguntza gisa, eta, horrenbestez, enkanteen etxearen esku iristea azkenean. Aurrerago ikusiko dugunez, Siena eskualdeko nekropoli etrusko batzuetan aurkitu diren artelan batzuek harreman kronologiko eta estilistiko zuzena dute Bilboko Arte Ederren Museoko ahariarekin; eta, beraz, pentsa liteke, ziurrena, horixe izango dela ahariaren sorburua.

Deskribapena

Bilboko Arte Ederren Museoko aharia irudizko edalontzi bat da. Buztin finez eginda dago, modelatu, polikromatu eta egositako buztinez. Hona hemen bere gehieneko neurriak: 22 cm-ko luzera, 13 cm-ko garaiera eta 5 cm-ko lodiera. Paperezko etiketa bat du behealdean itsatsita, eta, bertan, aipu hau agertzen da: «J.P. 76.». María de Arechavaleta andreak dohaintzan eta oinordetzan utzi zuen Palacio bildumako sailaren barruan zuen zenbakia da hori.

11 Bastianoni/Gregorio 1982.

12 Porri 1844.

13 Bonfioli 1984, 18 or. eta hurrengoa, 49. zenb.

14 Catoni 1975, 474. or., 79. zenb.



© Babestutako materiala

7. Ahari formako askós
Bilboko Arte Ederren Museoa
Atzealdearen ikuspegia



© Babestutako materiala

8. Ahari formako askós
Bilboko Arte Ederren Museoa
Xehetasuna

Irudian, gorputz arin eta estilizatuko ahari bat agertzen da. Tolestutako hanken gainean etzanda dago, burua aurrerantz zuzenduta. Gorputzaren anatomiako formak ondo bereizita daude: aurreko eta atzeko hanken giharretako irtenguneak ondo modelatuta daude, hezurren egitura nabarmentzeko. Mota honetako animalien irudikapenetan, berriz, normalean, gorputza lausotu egiten da, artileko kizkurren etenik gabeko estaldura jarraituaren azpian. Pieza honetan, egileak muturrera eraman nahi izan du deskribapen anatomikoa, askoz ere animalia arinagoa izango balitz bezala. Hankak naturaltasunez tolestuta daude, aurrealdekoak gorputzaren azpian eta apatxak gorantz, eta atzekoak, berriz, aurrerantz tolestuta eta apatxak beherantz. Isatsa lodia da, atzeko bi hanken artean kokatutakoak, eta behealdean barrabilen poltsarekin batzen da [7. ir.]. Horiek ikusirik, bistakoa da irudi naturala ederki aztertuta dagoela, eta, aldi berean, animalia zertxobait idealizatu dela: itxura dotorea du, lepoa luze eta zutituta, etzanda dagoen zaldi edo zezen bat dirudiela. Piezaren azaleraren tratamendua arreta handiz zaindu da: ahariaren larru gehiena banakatutako artilezko kizkurrez dago estalita; eta bularraldean, sabelean, begitartean eta hanken behealdean ile motza duten aldeak, berriz, leunduta daude.

Animaliaren burua [8. ir.] estilizatua da, mutur luzea dauka eta aurrealdean zertxobait erorita dago. Adarrak bira bakar batean daude kiribilduta, animalia gazteagoa balitz bezala; barrualdean, belarriak zeuden itsatsita, baina, gaur egun, hasiera baizik ez da geratzen. Begiak aurrerantz zuzenduta daude, eta giza itxura dute ia. Jarrera hori artistak berariaz egin nahi izan duen forma naturalen idealizazioaren beste ezaugarri bat da. Ahoa luzanga da, ezpain lodikoa; erdialdean zulo txikitxo bat du, edalontziaren edukia astiro isurtzeko erabiliko zena. Heldulekua eta lepoa buruaren atzealdean daude jarrita, buruaren garaiera ia gainditu gabe, animaliaren silueta ez aldatzeko.

Artelana egiteko teknika

Irudia egiteko eta ñabardura horiek guztiak lortzeko, modelatze eta polikromatze prozesu konplexua erabili zen. Gorputzaren atal nagusiak bi pieza ditu, luzetarako ardatzarekiko simetrikoak eta bertikalki lotutakoak. Horiek aurrez hustu zituzten, eta, gero, artilearen dekorazioa eman zieten, barbotinaren teknika baliatuz. Kizkur bakoitza bere aldetik egin zuten, azaleran zizelkatutako zirkuluen gainean, gogorrago atxikita gera zitezten. Sabeleko ertzetan, zirkulu horietako batzuk ez zituzten erabat estali. Bi piezak buztin hezeaz itsatsi zituzten, eta barbotina bera baliatuz leundu zuten lotura. Hortaz, artilezko kizkur batzuk pixka bat aldatuta geratu ziren. Isatsaren loturako lerroa ezkutatzeko, gurutzatutako ildo batzuk egin zituzten, txirikorda baten itxuraz. Gorputzaren gainean, heldulekua jarri zuten gero: loditutako ertzak zituen zerrenda lau bat, eta bizkarrarekin lotzeko aldean kizkur sarkor txiki batzuk dekorazio gisa, azaleraren gainerako aldearekin txertatzeko jarriak. Gero, heldulekuaren aurreko muturrean, ildaska bertikalak zituen lepo txikia eta ahari-burua jarri zituzten. Buruak ere simetrikoak diren bi buruerdi ditu: lehenik, hustu egin zituzten, eta, gero, adarrak eta belarriak erantsi zizkieten. Azkenik, lepoan kordoi fin bat jarri zuten, buruaren eta gorputzaren arteko lotura ezkutatzeko, eta soka horrek sendotasuna nabarmentzen du.

Pieza lehortu ondoren, polikromiaz arduratu ziren, hainbat teknika batera nahastuz: alde batetik, heldulekua eta lepoa berniz beltzez blaituta daude, zeramika grekoen bereizgarria zen kolorez; bestetik, animaliaren gorputza arreta handiz koloreztatu zuten. Zati gehienetan galdu bada ere, prestaera eta akaberaren aztarna batzuk suma daitezke oraindik, eta horietan argi eta garbi bereizten dira adarren tonu horixka eta artilearen zurixka.

Pieza aztertu bitartean, argi antzeman zuten adarretan urre-koloreko azalera txiki batzuk zeudela, urre-xaflaren aplikazioak izateko itxura zutenak. Hortaz, zantzu horiek aztertze eskatu zioten Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Kimika Analitikoaren Departamentuko IBeA ikerketa-taldeari (Ikerkuntza eta Berrikuntza Analitikoa). Museoa bertan hartu zituzten datuak, suntsizailleak ez ziren teknikak erabiliz; hain zuzen, X izpien fluoreszentzian oinarritutako bi ekipamendu eramangarri erabili zituzten, bata energia dispertsatzailekoa eta bestea Raman espektroskopiakoa. Horren ondorioz egiaztatu zuten urre fineko xaflen aztarnak zeudela adarretako eta buruko goialdeko pigmentazio horiaren gainean, eta berunezko zuriaren aztarnak, berriz, irudiaren gorputzean. Nolabait esan daiteke, ahariaren adarrak prestatzeko, lur horiz osatutako katilu bat baliatu zutela (burdina horiko oxidoa). Gero, urre fineko xaflaz estali zuten hori, eta gorputza, berriz, berunezko karbonatuz egindako pigmentu geruza batez margotu zuten, artilearen tonu zurixka lortzeko. Irudiak bukaeran zuen itxura zuri biziko gorputz bat izango zen. Zuri horretan, bereziki nabarmenduko ziren urre-koloreko adarrak; lepoa eta heldulekua, ordea, beltzez margotuta, ez ziren hainbeste nabarmenduko.

Formazko azterketa

Bilboko Arte Ederren Museoko ahariaren itxura ikusita, irudikatutako edalontzi bat dela esan liteke, edo «edalontzi plastiko» bat, bestela. Izan ere, profila bat dator irudikatutako animaliaaren anatomiarekin, eta ez tornuan biribildutako pieza batenarekin. Bestetik, lepoa eta isurbidea dituen edalontzi gisa erabiltzen denez, *askos* izena har zezakeen (ασκός, hitz grekotik, zahagia), izen hori ematen baitzaie, larruzko zahagiek bezala, betetzeko eta isurtzeko bi zulo dituzten piezei. Era berean, *guttus* hitz latindarra ere balia liteke, horrela esaten baitzaie barneko edukia tantaz tanta isurtzeko aukera ematen duten ontziei. Mota horretako edalontziek zituzten aldaera ugarien artean, pieza berezietan maiz agertzen dira animalien forma plastikoak, eta tamaina txikikoak izaten dira. Sarritan, gure kasuan bezala, animaliaaren ahoa isurbide gisa erabiltzen da.

Askoi piezek zuten zeregin zehatza maiz eztabaidatu da, baina normalean ukenduak edo lurrinak gordetzeko erabiltzen zirela uste izaten da. Gehienetan, ehorzketetan aurkitu izan dira, eta, beraz, errituzko hileta-izaera zutela uste da. Bistan denez, oso preziatua zen likido bat gordetzeko erabiltzen zuten, eta likido hori oso kopuru txikian baliatzen zuten. Zeramika grekoan eta Italiako tailerretan egiten zituzten horren imitazioetan, agertzen diren animalien sorta era askotakoa izan daiteke: ahariak eta lehoiak, untxiak, txoriak, izurdeak edota igelak¹⁵. Itxura denez, kasu horietan, animalia-motak eta haren tamainak ez dute harreman zuzenik izan edalontziaren zereginarekin. Beharbada, gehienetan agertzen den animalia-mota hegaztiak izango dira, bereziki ahateen antzekoak, hegazti horren adibideak baitaude hala Grezian nola Etrurian¹⁶. Kartagoko eta Iberiako zeramikan ere txori-itxurarekin moldatu ohi zituzten, eta likidoa isurtzeko zuloa animaliaaren mokoarekin bateratu ohi zuten¹⁷. Erromatarren aurrekoa den Cádizko nekropolian laurogeiko hamarkadaren hasieran egin nituen indusketetan, hegazti-itxurako pieza-zatiak aurkitu ziren, eta Cádizko Museoan osorik gorde diren dozena erdi ale daude¹⁸. Indusketa horietan, haur-ehorzketei loturik agertzen dira, eta, hortaz, maiz bateratu izan dira biberioekin edo pisteroekin. Izan ere, gaixoei edaten emateko erabiltzen ziren edalontzi zaharren forma ekartzen dute gogora. Cádizko Museoan benetako pistero erromatar bat dago, beirazkoa, arrautza-itxurako gorputz lautua eta punta luzea dituen, oraintsuko piezen oso antzekoa. Horrek nolabait berma lezake *askoi* izenekoek biberio edo pisteroaren zeregin hori izan zutela, eta haietatik edateko, ezpainak zuzenean bermatu behar zirela animaliaaren ahoan dagoen zulo txikian.

Aharien irudiak Greziako eta Erromako zeramikan

Aharia da sakrifizioko biktima edo eskaintza gisa maizen erabili izan den animalietako bat. Hala, bada, aski arrunta da antzinako artean agertzea, benetako eskaintza ordezkatzeko duen ex-voto huts gisa. Hala ere, hainbat adibidetan, zeramikan modelatutako irudia bat dator *askoi* izenekoaren tipologiarekin, hau da, lepoa eta isurbidea zituzten edalontzienarekin. Horiek horrela, errituzko zeregina izango zutela pentsatzeaz gain, erlijiozko altzariak direla uste da.

Aro geometriko greziarretik, *askoi* esaten zaie osorik dauden aharien irudiei; eta irudi horiek mota honetako edalontzien bereizgarri generikoak dituzte. Normalean, hodi-formako gorputza dute, zutik daude, eta lerro paraleloz edo gurutzatuz dekoratuta dute gorputza, naturalismoan sakontzeko asmo handirik gabe¹⁹. Eredu horietan agertzen dira Grezia ekialdeko pieza garaikideetan²⁰. Hala ere, Grezia ekialdeko kolonietako ekoi-

15 Sichtermann 1966, 61. or., 109.-116. zenb.

16 Del Chiaro 1984.

17 Pérez Ballester/Gómez Bellard 2004, 39. or.

18 Muñoz 1992.

19 CVA, Oxford, Ashmolean Museum 2, 75, Pl.(392) 1.4.; Berlin, Antikensammlung: 94.

20 CVA, Kopenhagen, National Museum 2, 61, Pl.(82) 81.8; Rodas, Museo Archeologico dello Spedale Dei Cavalieri 2, II.D.0.3, Pl.(486) 2.1-2.



9. Ahari formako figura beltzak dituen askós
Atikarra, K.a. VI. mendea
Zeramika. 20 x 29 cm
Musées Royaux d'Art et d'Histoire,
Musée de Cinquantenaire, Brusela
Inb. zenb. A2092

zpen horietan geldi dauden irudiak ere agertzen dira, hankak gorputz azpian tolestuta dituztenak²¹; eta korintoar estiloko zeramiketan polikromia-moldeak hartzen dituzte, animalia-aren artilezko estaldura irudikatzen, eta naturalismo gehiago islatzen duten modelatuak eta jarrerak ere bai²². Louvre Museoaan gordeta dagoen korintoar estiloko ahari bat²³ eta Sizilian aurkitutako beste bat²⁴ askoz ere gehiago hurbiltzen dira ahariaren benetako irudira: modelatua hobeto zehaztuta dago, hankak ondo bereizita, lepoa goratuta, eta gorputza artilezko kizkurak irudikatzen dituzten margotutako koskor txikiz apainduta. Atikako irudi beltzen zeramikan ere *askoi* ale batzuk aurkitu dituzte: ahari-itxura dute, hankak tolestuta²⁵; horietan, ontzia betetzeko lepoa askoz ere handiagoa da, *rhyta* izenekoen antza baitute, hau da, aro horretatik aurrera maizen azalduko diren libazioetako edalontzi handien antza. Nolabait esan daiteke Bruselako Museoko edalontzi arkaiko eder bat dela [9. ir.]²⁶ mota honetako irudiek arkaismoan lortu zuten molderik landuenaren adierazgarria.

Hala ere, osorik dauden aharien itxura duten *askoiak* gaizki irudikatuta daude irudi gorrien zeramikan, hala Greziakoan, nola Italiako kolonietan azalduetako horretan. Aitzitik, aldi helenistikoan eta erromatarrean egin zituzten pieza batzuek erabat naturalistak ziren formak islatu zituzten berriz, nahiz eta industria-lanak izateko zantzu nabarmenak izan, hau da, pieza grekoak baina arreta askoz gutxiagoz landuta egon arren.

J. Paul Getty Museoaan, laranja koloreko terrakotazko ahari bat dago [10. ir.]. Erromatarren garaikotzat jotzen da, eta argi azaltzen du arte grekotik erromatarrean izan zen eraldaketa estilistikoa eta teknikoa. Gettyren

21 CVA, Berlin, Antiquarium 4, 31-32, Pl.(1595) 169.2; Kopenhagen, National Museum 2, 61-62, Pl.(82) 81.11; Rodas, Museo Archeologico dello Spedale dei Cavalieri 2, II.D.O.3, Pl.(486) 2.6; Heidelberg, Universitat 1, 15, Pl.(438) 4.10.

22 CVA, Heidelberg, Universitat 1, 16, Pl.(440) 6.3; Cambridge, Fitzwilliam Museum 1, 15, Pl.(243) 6.2.

23 CVA, Paris, Musée du Louvre 8, III.C.C.5, Pl.(502) 5.11-12.15.

24 CVA, Gela, Museo Archeologico Nazionale 2, III.C.9, Pl.(2354) 17.4-8.

25 CVA, Berlin, Antiquarium 4, 74, Pl.(1627) 201.4-5.

26 CVA, Brusela 2 (1937), III H e, Pl. 15.4.



10. Ahari formako askós
 Erromatarra, K.a. II. mendea
 Terrakota. 11 x 17 cm
 J. Paul Getty Museum
 Theodore Wolfberg jaun-andreen dohaintza
 Inb. zenb. 77.AE.10

piezan, gorputzak hodi-forma du berriz, Greziako lan geometrikoetan sumatzen zen forma bereizigabea; hankak gorputz azpian tolestuta daude, baina atzeko apatxak alderantzikatuta daude, eta lepoa motza eta sendoa da. Bestetik, lepoa zuzenean dago jarrita animaliaren buruaren gainean. Kalifornian aurkitutako eta Barakat galeriak²⁷ eskainitako beste pieza batek tamaina handiko ahari bat irudikatzen du. Pieza horretan, artilea ile-kiribilen modura moldatuta dago, lehoien antzinako eskultura askotan azaltzen diren horien antzera; era berean, hankak jarrera naturala izango litzatekeenaren kontrara daude tolestuta, eta burua handiegia da eta begiek giza begirada dute. Bi piezak ikusita, pentsa dezakegu Greziako klasizismo bete-betean gutiz naturalistak ziren aharien irudiak zeudela, Bilboko Arte Ederren Museoan dagoenaren modukoak. Irudi horiek dotorezia eta zehaztasun anatomiko gehiago zutela aurreko irudi arkaikoei baino. Hala, bada, gero, industrializatuen zeuden tailer erromatarrek irudi horiek imitatu zituzten, egile horiek nahiago baitzuten apaingarriak arretaz landu, irudi osoaren harmoniaz kezka handirik hartu beharrean.

Aldi klasikoko zeramikaren barruan ez da gorputz osoko aharirik jaso dokumentuetan, baina, edalontzi askotan, Kristo aurreko V. eta IV. mendeetako aharien bustoak agertzen dira. Busto horiek zantzu interesgarriak dituzte, ezaugarriak nola eraldatu ziren ikusteko eta, orobat, kolorearen tratamendua aztertzeko. Ekialdeko joera zegoen aldiak, ahari-buru itxura zuten edalontzi plastikoen²⁸ egin zituzten. Normalean, edalontzi horiek animaliaren lepoa erabiltzen dute oinarritzat, eta lepo txiki bat izaten dute goialdean [11. ir.]. Pieza horien ezaugarri estilistikoak osorik dauden irudien antzeko ezaugarriak dituzte, baina argi erakusten digute zergatik zen ahari-burua aldi klasikoan gogokoen zuten irudietako bat. Hain zuzen, *rhyta* izeneko edalontzietan irudikatzen zuten, hau da, Antzinatean balio estetikorik handiena zuten edalontzietan, oturuntzetan edateko edo errituzko libazioak egiteko erabiltzen zituzten horietan.

27 <http://www.barakatgallery.com/Store/Index.cfm/FuseAction/ItemDetails/UserID/0/ItemID/20085.htm>

28 Ducat 1966, 95 or. eta hurrengoak.



© Babestutako materiala

11. Ahariaren protomo formako askós arkaikoa
 Rodiar arkaikoa, K.a. VI. mendea
 Terrakota
 Ashmolean Museum, University of Oxford
 Inb. zenb. AN1879.134



© Babestutako materiala

12. Triptolemoko margolaria (ustez, berak egina)
 Ahari formako figura gorriak dituen rhyton
 Atikarra, c. K.a. 480
 Terrakota. 22,5 x 13,9 x 26,6 cm
 Virginia Museum of Fine Arts, Richmond
 Adolph D. and Wilkins C. Williams Fund
 Inb. zenb. 79.100



© Babestutako materiala

13. Brygosko margolaria
 Ahari-buruaren forma duen rhyton
 Atikarra, c. K.a. 480-470
 Zeramika. 19 x 12,8 cm
 The Cleveland Museum of Art
 J. H. Wade Fund delakotik eskuratua
 Inb. zenb. 1988.8



14. Ahari-buruaren forma duen *rhyton*
 Italikoa, K.a. IV. mendea
 Zeramika. 20,2 cm
 The British Museum, Londres
 Inb. zenb. 1856,1226.59

Rhyton izenekoaren jatorria Historiaurreko edalontziak dira. Behiaren familiako animalien adarren forma imitatzen zuten ontzi horiek landugabeko ontzirik ohikoenetakoa izango ziren, lekukotasun ugari azaltzen baita Goi paleolitotik aurrera. Ekialde Hurbileko antzinako zibilizazioetan maiz agertzen dira; eta, proposamen bati jarraiki, beharbada, Greziako pieza klasikoak grekoek Plateako gatazkako²⁹ harrapakinean eraman zituzten edalontzi pertsiarren kopiak izan litezke, edo, bestela, Kristo aurreko VI. menderako ugariak ziren merkataritzako harremanen emaitza³⁰. Nolanahi ere, Greziako *rhyta* piezen ekoizpena izugarri hazi zen Kristo aurreko V. mendean, indarrez jarraitu zuen irudi gorrien zeramika grekoaren aldi osoan³¹, bereziki ugaria izan zen Italiako hegoaldean³², eta aldi helenistikoan gainbehera egin zuen.

Greziako aldi klasikoko *rhyta* askotan, adarraren alde zorrotzaren tokian animalia baten burua jartzen zuten, katuaren familiako edo zaldiaren familiako animalia baten burua. Ahari-burua zuten piezak oso ugariak dira. Oso egokiak dira edateko, eta, beraz, ziurrena oturuntzetan eta erritual dionisiakoetan erabiliko zituzten. Sarritan, goialdean zabalik dagoen alde kanpai-formakoa izaten da, eta irudien dekorazioaz hornitu daiteke. Tankera horretako dekorazioan, bakanalekin zerikusia duten pertsonaiak dira ugariak: satiroak, menadeak eta, beren izaera mitologikoari jarraiki, neurririk gabeko jardueretan ari diren izaki basatiak. *Rhyta* dionisiakoetan, ohikoa da ahari-burua agertzea, maiz mando baten buruarekin nahastuta. Izan ere, mandoa izaten da askotan sileno hordiek eta Dionisok berak gainean ibiltzeko baliatzen duten aberea. Aharia eta antxumea era horretako erritualetan erabiltzen zuten, sakrifizioko animalia gisa; eta, horren ondorioz, zentzu betea du aharia eta mandoa *rhyta* izenekoetan batera nahasita agertzeak, ardoaren jainkoa gogorazteko edo hari opari egiteko egiten ziren zeremonietan eta oturuntzetan.

Hala, bada, pentsa liteke aldi geometrikotik aldi arkaikora bitartean, aharien irudiak edo buruak dituzten *askoi* piezek antzeko zeregina izango zutela, eta aldi klasikoan, berriz, *rhyta* izenekoaren forma nahiago izan zutela, eta, horren ondorioz, azken tipologia hori hartu zutela nagusiki. Pieza batzuek argi azal dezakete pro-

29 Hoffmann 1960.

30 Richter 1963.

31 Hoffmann 1962.

32 Hoffmann 1966.



15. Lehoi formako *rhyton*
Etruriarra, K.a. IV. mendearen bigarren zatia
Zeramika. 15,2 x 17,7 cm
The British Museum, Londres
Inb. zenb. 1873,0820.269



16. Orein formako *askós*
Italikoa
Museo Archeologico Nazionale, Ferrara

tomoetatik *rhyta* izenekoetara arteko igarobidea; adibidez, Richmond museoko kopa batean zehatz sumatzen da [12. ir.]; bertan, ahari-burua oin koniko baten gainean dago, eta goialdeko lepo zabalean oturuntzako eszena bat dago irudikatuta³³. Kopa hori Triptolemos margolariarena dela uste da; eta Charinos zeramika-gilearen sinadura du, ziurrena, Kristo aurreko 480. urte inguruan egina. Horren ondoan, *askos* eta *rhyton* piezen arteko formak dituzten beste edalontzi batzuk koka ditzakegu³⁴; bereziki nabarmentzen dira Brygos margolariarenak omen diren hiru edalontziak —Kristo aurreko V. mendearen lehen zatiko edalontzi atikoen margolaririk garrantzitsuenetakoa izan zen—, Varsovia³⁵, Genoa³⁶ eta Cleveland [13. ir.]³⁷ hirietako museoetan gordetakoak. Pieza horietan bereziki nabarmendu behar da animalia-aren burua ezin hobeto landuta dagoela, eta gai dionisiakoak islatu direla edalontziaren ahoan margotutako irudietan. Poloniako bildumako piezak eraztun-itxurako oinarriaren oin garaia du, eta beste piezek, berriz, ez dute oinik. Hori dela-eta *rhyta* direla esan liteke, baina, hala ere, ez dute zezen-adarraren imitazioari dagokion forma luzatua. Hortaz, pentsatu behar dugu Kristo aurreko 480-470. urteen inguruan —hain zuzen, horixe da Brygos margolariaren hamarkada nagusia— sendotuko zela ahari-buruak irudi gorrien zeramika atikoko *rhyta* piezetara egokitzeko prozesua, protomo arkaikoak abiaburutzat hartuta, eta oturuntzei eta *symposia* dionisiakoei lotutako baxerak egiteko joeraren barruan.

Ahari-burua zuten *rhyta* pieza ugari ekoitzi zituzten tailer atikoetan³⁸; eta Kristo aurreko V. eta IV. mende-tako Italiako hegoaldeko ekoizpena ere eraman zituzten pieza horien moldeak³⁹. Horietan, argi sumatzen da oro har edalontziaren forma eta animalia-aren burua bera ere luzatu direla, eta, gai dionisiakoen orde, garrantzirik gabeko beste gai batzuk erabiltzen dituztela. Horrekin batera, sarritan ikus dezakegu polikromia- ren tratamendua aldatzen dela, Italiako kolonietako piezetan maiz agertzen baitira kolore beltzez estaliriko ahari-buruak, adarretako kolore zuria edo horixka nabarmenduta dutenak. British Museumeko *rhyton* batean [14. ir.], argi ikus daiteke koloreztatzeke modu hori, bai eta ahariaren muturra estilizatzeke joera ere, gure piezak azaltzen duenaren antzekoa.

33 Guy 1981, Topper 2009.

34 CVA, Brusela, Musées Royaux d'Art et d'Histoire (Cinquantenaire) 3, IV.D.1, Pl.(144) 1.7; Compiègne, Musée Vivenel, 13, Pl.(116) 18.13.

35 CVA, Goluchow, Musée Czartoryski, 20, Pl.(023) 23.4A.4B.4C.4D.4E.4F.4G.

36 Beazley 1963, 382.186. zenb., 1649.

37 CVA, Cleveland, Museum of Art 2, 40-42, Pl.(1825) 79.1-6.

38 Hoffmann 1962.

39 Hoffmann 1966.



17. Orein formako *askós*
Etruriarra, K.a. IV. mendea
Terrakota. 19 cm
Bilduma partikularra

Kristo aurreko IV. mendeko zeramika grekoan eta Mediterraneoko periferiako tailerretan, oso edalontzi plastiko gutxi dago. Horiek horrela, zaila da Bilboko Arte Ederren Museoko ahariari gune geografiko jakin bat esleitzea. Zentro etruskoetan baizik ez da aurkitu forma plastikoak dituzten eta animalien antzeko irudiak agerian dituzten *askoi* piezen multzo garrantzitsu bat. Vulcin dagoen François hilobian jasotako lehoi-itxurako edalontzi bat da «Clusium tailerra»⁴⁰ deitutakoekin lotzen den obrarik ospetsuena –Londresko British Museumen gordeta hau ere [15. ir.]–. Izen latindar hori Chiusi hiritik datorkio, hiri horretan egongo baitzen beharbada ekoizpen-zentroa, eta hor egingo baitzituzten, Kristo aurreko IV. mendeko bigarren zatian, hainbat animalia formak eta giza buruak zituzten edalontziak.

Londresko museoko lehoia Louvre Museoan dagoen orein-itxurako *askos* batekin (H176) jarri da harremanetan⁴¹. «Louvreko orein-*askosaren* taldea»⁴² deitzen den eta eremu etruskoetan aurkitu den multzoan agertzen da *askos* hori; eta multzoan, antzekoak diren orein batzuk eta terrakotaz egindako beste animalia batzuen irudiak daude. Multzo horretan, Ferrarako museoan gordeta dauden eta Spinako nekropolian jaso ziren hainbat pieza daude. Hala ere, pieza horiek gehiegizko aniztasuna dute agerian, teknika eta estilo aldetik, Valle Trebako 83. hilobian jasotako piezan ikus daitekeenez [16. ir.]. Bestetik, nabarmendu behar da Louvren jasota dagoen eta multzo osoari izena ematen dion *askos* pieza idunekoa batez apainduta dagoela eta urre-koloreko adarrak dituela. Hori bat dator Bilboko Arte Ederren Museoko ahariak dituen ezaugarriekin.

Beharbada, tailer berean egina izango da Pollak bildumako oreinkume baten irudi ederra [17. ir.]. Irudi hori Londresko King Streeten dagoen Christie's aretoan atera zen enkantean, 2004ko urrian. Bertan ikus daitekeenez, arreta bera jarri da animalia anatomia errealismoz irudikatze eta, orobat, kolorea leuntasunez emateko. Era berean, heldulekuaren eta lepoaren jarrera eta forma oso antzekoak dira.

Dekorazioko tekniken esanahia eta datazioa

Arreta berezia jarri behar zaio piezaren berezitasunari, batez ere, adarretan itsatsita dauden urre finezko xafilen aztarnei. Urre-kolorea edalontzi greko klasikoan margoa osatzeko erabiltzea Kristo aurreko V. mendetik erabili den teknika bat da⁴³, eta irudien apaingarrietan baliatu da, bereziki emakumezkoen bitxietan. Irudi gorrien zeramika atikoaren garapenean, urre-koloreko apaingarriak gero eta sarriago azaltzen ziren, baliabide egokia baitziren edalontziak aberasteko, erliebean egindako aplikazio txikiekin nahastuta⁴⁴. Teknika horiek

40 Harari 1980.

41 Robertson 1938, 45. or.

42 Beazley 1947, 192. or.

43 Noble 1960, 316. or.

44 Cohen 2004.

zuzeneko harremana dute hormako margolaritza atikoan erabiltzen ziren baliabide efektisten garapenarekin, eta onarpen ona izan zuten, bereziki ekialdeko merkatuetan.

Zeramika grekoaren periferiako tailerretan, polikromia eta urre-kolorea izan ziren Kerch izeneko zeramikaren bereizgarri nagusiak. Zeramika horrek Itsaso Beltzaren ertzean dagoen herri baten izena jaso zuen (antzinako *Panticapaeum* zena); bertan pieza ugari aurkitu dira, eta gehienak Ermitage museoan daude gordeta. Kercheko zeramika da Kristo aurreko IV. mendeko zeramika atikoko multzorik berriena. Mediterraneo aldeko leku askotatik banatu zuten, baina Itsaso Beltzaren ekialdeko muturrean aurkitu zituzten edalontziak oso ugariak dira, eta, beraz, uste izatekoa da hortxe izan zutela merkatuak zuzenena. Orain dela gutxi, erakusketa batean egon da ikusgai Getty Museumen gordeta dagoen Kercheko zeramikazko anfora bat, eta sinposio⁴⁵ bat ere antolatu dute hari buruz. Hori guztia baliagarria izan da lan hauei buruzko azterketak gaurkotzeko. Gero, instituzio horrek Itsaso Beltzeko itsasaldetik grekoek izandako hedapenari loturik agertu diren luxuzko objekturik adierazgarrienak bildu ditu, batez ere, Kercheko zeramikak deitutakoak⁴⁶, eta, horiekin batera, urregintzako lanak, estatuak eta, ziurrena, Ukrainako antzinako erresumetako monarkek eskuratutako ehunak.

Bilboko Arte Ederren Museoko ahariak dituen bi bereizgarri tekniko arreta handiz landu zituzten Kercheko zeramiketari: alde batetik, buztin hezea erliebean aplikatzea, artileak eratzeko; eta, bestetik, adarrak urre-kolorez margotzea. Kercheko zeramiketari urre-xaflak ezarri zituzten, alde batetik, piezak aberasteko, eta, bestetik, klasizismoaren bukaerako bereizgarria zen errealismo ilusionista lortzeko behar zen polikromia egokia sortu ahal izateko. Margotutako edalontzietan, urre-kolorea erabiltzen zuten bitxietan, eroteen hegoetan eta, berez, urre-kolorekoa izan zitekeen edozein osagaitan. Hortaz, litekeena da artistak urre-kolore leuneko ahari bat irudikatu nahi izatea. Kercheko zeramikazko edalontzi plastikoak ez dira oso arruntak, eta, beraz, pentsa liteke animalia ez zela ausaz hautatu, alegia, hautu hori berariaz egin zutela, ezaugarri berezi batzuk zituen ahari bat irudikatu nahi izan zutelako.

Bilboko Arte Ederren Museoko piezak lotura izan dezake Kercheko zeramikekin, eta, hala izatekotan, urre-koloreko ahari bat egoteak zentzu berezia hartzen du. Itsaso Beltzeko urruneko ertzetan zegoen Kolkida, urrezko ahari-larrua lortzeko asmoz Jasonen argonautekin aurkitu behar zuen herrialdea. Antzinatean, urrezko ahari-larrua ikono bat zen, larru hori bere kokaleku urrunaren adierazgarria baitzen. Gero, Europako monarkiaren adar bateko ikonografia modernora eraman da, horien ustez urrezko ardi-larrua baita erregetzari legezkatasuna ematen dion sinboloa.

Urre-koloreko aharia

Chrysomallos (Χρυσομαλλος), urrezko aharia, izaki mitologikoa zen. Ovidioren ustez (*Metamorfosia*, 6, 118), Poseidon eta Teofanesen semea zen –Bisaltes erregearen alaba zen Teofanes–. Pseudo Higinioren *Fabulak* lanean (119), zehatz azaltzen da nola bilakatu zen ahari Poseidon, hain zuzen, ardi bilakatu zen Teofanese-kin harremanak izateko, eta nola erditu zen gero Teofanes urrezko ahari batez. Bestetik, Beoziako erregea zen Atamantek bi seme-alaba izan zituen Nefelego hodeiarekin, Frixo eta Hele izenekoak; eta Ino, haien amaordea, biak hiltzen saiatu zen. Nefelego urrezko aharia bidali zien, babespean jarritan, eta ahariak airetik eraman zituen Itsaso Beltzeraino, baina Hele erori egin zen, eta Mediterraneo eta Itsaso Beltza bereizten dituen itsasartearen ito zen. Harrezkero, itsasarte horrek Helesponto izena jaso zuen, bere oroimenean. Gero, Frixo Kolkidara heldu zen, Itsaso Beltzeko ekialdeko eskualdera. Hor, aharia sakrifikatu zuen Aresen ohorean,

45 Cohen 2006.

46 Petrakova 2007.



18. Figura gorridun kopa, Hellenen eta urrezko ahariaren irudikapenarekin Atikarra, K.a. IV. mendea Ashmolean Museum, University of Oxford Inb. zenb. 1946.52

eta haritz batetik zintzilikatu zuen ahari-larrua, jainkoaren santutegian. Hortik aurrera, aharia Aries konstelazioa izango zen, eta haren larrua Frixok ordezkatzeko duen galdutako erregetzaren ikur gisa geratu zen, suge izugarri baten zaintzapean.

Erlikia horrek ospe handia hartu zuen, eta, horiek horrela, Jasonek hura berreskuratzea erabaki zuen, lolkoko tronua betetzeko legezko titulua eduki ahal izateko. Horrenbestez, espedizioa antolatu zuen, eta Itsaso Beltza zeharkatu zuen, laguntza eman zioten hainbat heroirekin batera, Argos itsasontzian, epika klasikoko langintza ospetsuenetako bat eginez. Handik mende askotara, Augsburgotarren etxeak heroi horren oinordekotzat jo zuen bere burua, urrezko ahari-larrua hartu zuen sinbolo gisa, eta, horrenbestez, Urrezko Ardi-larruaren ordena sortu zen.

Mito zaharretan ohikoa den moduan, urrezko ahariaren kontakizuneko xehetasun batzuek hala-moduzko ahallegin bat izan behar dute albiste miragarriak arrazionalizatzeko. Kolkida, Georgiako eskualde modernoko zati bat, Antzinatean oso kultura aberatsekoa izan zen metalurgian, eta, arlo horretan, urrea zen metalik ugarienetakoa. Aipamen generikoak eta ahozko tradizioko zenbait albiste aintzat hartuta, eskualde horretan, hauxe zen ibai-hondarpetatik urrea eskuratzeko erabiltzen zuten sistemetako bat: uretan ardi-larruak jartzea, pipitak artilean geldiarazita gera zitezten. Gero, ardi-larruak zuhaitzetatik zintzilikatzen zituzten, lehor zitezten, eta artilea astintzean urrea erortzen zen. Horrez gain, beharbada, Jason eta argonauten espedizioak epopeia bilakatzen ditu menturazale grekoek zuhaitzetatik zintzilikatutako larruetan zegoen urre preziatua lortzeko egin zituzten nabigazio horiek.

Frixok eta Helek, Chrysollos ahariak eramanda, Ekialderantz egin zuten bidaia edalontzi greko batzuetan dago irudikatuta. Napoliko Museoan gordeta dagoen irudi gorrietako anfora atiko batean⁴⁷ Ino agertzen da, Frixo semeordeari jarraiki, eta Frixo airean zintzilik dago, ahari baten adarrari helduta. Oxfordeko Ashmolean Museumen dagoen irudi gorrietako kopa baten atzealdean Hele agertzen da, jarrera berean margotuta [18. ir.]⁴⁸, eta Berlinen gordeta dagoen beste kopa batean Frixo azaltzen da era berean⁴⁹. New Yorkeko Metro-

47 Beazley 1963, 1161.1. or.

48 Ibid., 1518.5. or.

49 CVA., Berlin, Antiquarium 2, 35-36, Pl.(1020) 91.1-4.



19. Frixoren eta urrezko ahariaren irudikapena duen plaka
Grekoa, c. K.a. 450
Terrakota
The Metropolitan Museum, New York
Rogers Fund, 1912
Inb. zenb. 12.229.20

litan Museumen dagoen terrakotako xafla batean [19. ir.], Frixo eta ahariaren multzoa azaltzen da, uhinez eta arrainez beteriko oinarri baten gainean. Frixo airean dago, zintzilik, ahariaren bi adarrei eutsita; eta ahariaren buruak eta Kristo aurreko V. mendeko zeramika atikoko *rhyta* piezetan agertzen ziren buruak oso antzekoak dira.

Irudi horietan guztietan, aharia hegorik gabe dago irudikatuta. Animaliak izaera erdi-jainkotiarra zuen, eta, horiek horrela, besterik gabe joan zitekeen airetik. Horrenbestez, Bilboko Arte Ederren Museoko ahariak hegorik ez badu ere, hori ez da kontraesana Chrysomallosekin identifikatu ahal izateko. Aitzitik, lepo inguruan duen kordoi bereziari erreparatuta, beharbada, erraz harrapatu daitekeen ahari bat irudikatu nahi izan dute. Izan ere, ideia hori bat dator Frixo eta Heleren bidaian betetzen duen zereginarekin.

Hortaz, oraingoz, Bilboko urre-koloreko aharia da Chrysomallosen irudikapen ziarra duen Greziako zeramikazko lan zahar bakarra. Ezohiko animalia horrek antzinako mitologiaren zati handi bati ematen dio zentzua, eta etengabe azaldu da Europako kultura modernoan, urrezko ardi-larrua erregetzaren sinbolotzat hartu denetik. Irudia Atenasko tailerretan egingo zuten, Kristo aurreko IV. mendearen azken herenean. Aldi horretako lanak erraz iristen ziren etruskoen esparrura; eta, ziurrena, esparru horretan aurkituko zuten lana, beharbada, Siena aldeko nekropoli aberats batean, antzeko aurkikuntzak egin baitira horrelakoetan. Hala ere, garai horretan, tailer atikoei Itsaso Beltzeko ekialdeko erresumentzat lan egin zuten gehienbat. Erre-
suma horietan, urre-koloreko ahariak berezko esanahi garrantzitsua zuen. Hor, gainera, bereziki maite zuten modelatuaren fintasuna, eta lanak aberasten eta errealismo ilusionistaz hornitzen zituzten polikromiak ere. Hortaz, gure piezak zentzu betea hartzen du, Greziako zeramikaren historiako garairik erakargarrienari amaiera eman zioten ekoizpen aberats berantiar horien barruan.

BIBLIOGRAFIA

Bastianoni/Gregorio 1982

Curzio Bastianoni ; Mario De Gregorio (a cura di). *Gli autografi Porri della Biblioteca comunale di Siena : catalogo*. Firenze : Giunta regionale toscana : La Nuova Italia, 1982-.

Beazley 1947

John Davidson Beazley. *Etruscan vase-painting*. Oxford : Clarendon Press, 1947.

Beazley 1963

—. *Attic red-figure vase-painters*. Oxford : Clarendon Press, 1963 (2. ed.).

Bonfioli 1984

Mara Bonfioli (a cura di). *Monete «bizantine» nelle raccolte numismatiche del Museo Civico di Siena*. Roma : De Luca, 1984.

Catoni 1975

Giuliano Catoni. «Giuseppe Porri e la sua Collezione d'autografi nella Biblioteca comunale di Siena», *Critica Storica*, Messina, Firenze, Roma, a. XII, 2-4 zenb., 1975, 454. or. eta hur.

Cohen 2004

Beth Cohen. «Bubbles, baubles, bangles and beads : added clay in Athenian vase painting and its significance», Clemente Marconi (arg.). *Greek vases : images, and controversies : proceedings of the conference sponsored by the Center for the Ancient Mediterranean at Columbia University, 23-24 March 2002* (Columbia studies in the classical tradition, 25). Leiden ; Boston : Brill, 2004, 64. or. eta hur.

Cohen 2006

—. *The colors of clay : special techniques in Athenian vases*. [Erak. kat., Getty Villa]. Los Angeles : Getty Publications, 2006.

Del Chiaro 1984

Mario A. Del Chiaro. «Etruscan bird-askoi : painted vases in the shape of birds», *Expedition*, Philadelphia, 26. libk., 3. zenb., 1984, 15. or. eta hur.

Ducat 1966

Jean Ducat. *Les vases plastiques rhodiens archaïques en terre cuite*. Paris : E. de Boccard, 1966.

Guy 1981

J. R. Guy. «A rams-head rhyton signed by Charinos», *Arts in Virginia*, Richmond (Virginia), 21. zenb., 1981, 2. or. eta hur.

Harari 1980

Maurizio Harari. *Il «gruppo clusium» della ceramografia etrusca*. Roma : L'Erma di Bretschneider, 1980.

Hoffmann 1960

Herbert Hoffmann. «The persian origin of attic rhyta», *Antike Kunst*, Basel, IV. libk., 1961, 21. or. eta hur.

Hoffmann 1962

—. *Attic red-figured rhyta*. Mainz : P. von Zabern, 1962.

Hoffmann 1966

—. *Tarentine rhyta*. Mainz : P. von Zabern, 1966.

Kozloff 1981

Arielle P. Kozloff (arg.). *Animals in ancient art from the Leo Mildenberg collection*. Cleveland, Ohio : Cleveland Museum of Art ; Bloomington : Indiana University Press, 1981.

Muñoz 1992

Ángel Muñoz Vicente. «En torno a seis askoi zoomorfos de la necrópolis púnica de Cádiz», *Boletín del Museo de Cádiz*, V, 1992, 7-15. or.

Noble 1960

Joseph V. Noble. «The technique of attic vase-painting», *AJA. American Journal of Archeology*, Boston, 64, 1960, 307. or. eta hur.

Ortuondo/Entrena 2006

José María Ortuondo Rocendio ; Santiago Entrena Gil. *Euskal Museoko pieza egiptiarrak = Piezas egipcias del Museo Vasco*. Bilbao : Euskal Museoa = Museo Vasco, 2006.

Pereda 1998

Arantxa Pereda. «La Colección Palacio : arte japonés en el Museo de Bellas Artes de Bilbao» en *Arte japonés en el Museo de Bellas Artes de Bilbao*. [Erak. kat.]. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1998, 9-15. or.

Pérez Ballester/Gómez Bellard 2004

José Pérez Ballester ; Carlos Gómez Bellard. «Imitaciones de vasos plásticos en el mundo ibérico», *La vajilla ibérica en época helenística : siglos IV-III al cambio de era : seminario celebrado en la Casa de Velázquez (22-23 de enero de 2001)*. Ricardo Olmos Romera ; Pierre Rouillard (arg.). Madrid : Casa de Velázquez, 2004, 31-47. or. (Colección Casa de Velázquez, 89. libk.).

Petrakova 2007

Anna E. Petrakova. «'Flickers of Beauty' : Kerch vases for the State Hermitage Museum», Anna E. Petrakova (arg.). *Greeks on the Black Sea : ancient art from the Hermitage*. [Erak. kat.]. Los Angeles : J. Paul Getty Museum, 2007, 35. or. eta hur.

Porri 1844

Giuseppe Porri. *Miscellanea storica sanese. Il primo libro delle istoire sanesi di Marcantonio Bellarmati. Due narrazioni sulla Sconfitta di Montaperto tratte da antichi manoscritti. Cenni sulla Zecca sanese con documenti inediti*. Siena : presso Onorato Porri, 1844.

Poteries archaïques chinoises... 1925

Poteries archaïques chinoises des époques ou dynasties Han, Tang, Song, Yuan & Ming : collection de Monsieur Schilling : bronzes pré-Han, Han, Wei, Tang & Son, pierres sculptées archaïques, peintures chinoises de la dynastie Ming, objets d'art de la Grèce, de l'Asie Mineure et de l'Égypte : dont la vente aux enchères publiques aura lieu Hotel Drouot, salle n° 8, les lundi 29, mardi 30 juin et mardi 7 juillet 1925 ... : R. Glandaz commissaire-priseur, André Portier expert. Paris : A. Portier, 1925.

Richter 1963

Gisela M. A. Richter. «Hoffmann, attic red-figured rhyta» (recensión), *Revue belge de philologie et d'histoire = Belgisch tijdschrift voor filologie en geschiedenis*, Bruxelles, 41, 1963, 414. or. eta hur.

Robertson 1938

C. Martin Robertson, «A group of plastic vases», *Journal of Hellenic Studies*, London, 58.1, 1938, 41. or. eta hur.

Sagaste 2007

Delia Sagaste. «La gestión de las colecciones de arte asiático en los museos españoles : el caso de la colección Palacio en el Museo de Bellas Artes de Bilbao», Pedro San Ginés Aguilar (arg.). *La investigación sobre Asia Pacífico en España, CEIAP (Colección Española de Investigación sobre Asia Pacífico)*, 1. zenb. Granada : Universidad de Granada, 2007, 455. or. eta hur.

Sichtermann 1966

Hellmut Sichtermann. *Griechische Vasen in Unteritalien : aus der Sammlung Jatta in Ruvo*. Tübingen : E. Wasmuth, 1966.

Topper 2009

Kathryn Topper. «Primitive life and the construction of the sympotic past in Athenian vase painting», *AJA. American Journal of Archeology*, Boston, 113. libk., 1. zenb., 2009ko urtarrila, 3. or. eta hur.

Trendall/Cambitoglou 1978-1982

A. D. Trendall ; Alexander Cambitoglou. *The red-figured vases of Apulia*. 3 libk. Oxford : Clarendon Press, 1978-1982.